UNIBERTSITARIO EUSKALDUNAK DESERRIAN

Atzerriko bidea ikasleen uztarri

Maila goreneko ikasketei ekin behar dietelarik, Ipar Euskal Herriko unibertsitario gehientsuenek atzerriko bidea hartu behar dute, nahitaez.

Aitor Renteria• Baiona

Baxoa gainditurik, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasleek hautu garrantz bat egin behar dute. Baionako Unibertsitatea Pauekoaren adar bat bertzerik ez da, eta eskaintzen dituen formazio motak urriak dira. Gauzak horrela, bertako ikasleek ikasketak non egin erabaki behar dute. Donostiak erakargarritasun handia dauka, baina hauta-probak gaztelaniaz gainditu behar dira. Horregatik, ikasle gehienek Paueko, Bordeleko, Tolosako edo Parisko unibertsitateen artean hautatzen dute, atzerriko bidean lehen urratsak jorratuz.

Tolosa

Maialen Torre mugertarrak psikologo agiria sakelan dauka dagoeneko, eta doktoregoa prestatzeari ekin dio. Lehen bi urteak Tolosan eman zituen; hirugarrena, Irlandan; laugarrena, berriz, Tolosan beste behin; eta orain Metzen dihardu.

Gogotsu abiatu zen Maialen, nahiz eta nehor ez zuen ezagutzen Tolosan. Euskal Herriko gazte batekin etxea alokatu zuen. Lehen aldikoz sendiarengandik urruti, eta hilabeteko xahutzeak berak kudeatu beharra. Gehienekin agitzen den bezala, gurasoen mende zen ekonomikoki, baina lehen urtean ez zuen horren kontzientziarik hartu. Alta, uda lanean eman zuen, jarduerak eta bidaiak finantzatzeko. Etxearen alokairua ordaintzeko, berriz, CAFen laguntza zuen. Baina etxea sekulan ez da bere buruhaustea izan, beti azken unean alokatu baitu, merkeena. «Metzen 6 metro koadroko gela nuen, baina aski zen enetako», erran du mugertarrak.

Aldaketa latza da lehen urtekoa; «pentsa, ikastolan, terminalean, zazpi ikasle ginen, eta unibertsitatean, 1.600 ikasle» azpimarratzen du Maialenek. Kanpoko hirietan euskaldunek ghettoak osatzeko ohitura badute ere, «nik mundua edan nahi nuen, bertzeekin nahasi», eta bertze kulturetara hurbildu zen. Dena dela, euskarazko kurtsoak eman zituen AEKn, «Euskal Herriarekiko lotura atxikitzeko».

«Herrimina nagusitzen joan zitzaidan, emeki, eta Irlandan nengoelarik deliberatu nuen Euskal Herrian bizi eta lan eginen nuela», adierazten du Maialenek. Interneten bidez segitzen zituen Euskal Herriko berriak, «sekulan baino hurbilagotik natxekiola». Metzen ere, herriminak zimiko sakona egiten zion, eta «dena uztea, herrira itzultzea pentsatzen nuen, usu negarrari ezin atxikiz».

Herrian bizi, herrian ikasi, aspaldiko leloa da Ipar Euskal Herrian. Horri beharrezkoa baderitzo ere, kanpoko esperientzia izugarri aberatsa izan dela aitortzen du Maialenek, gogoari bertze irekidura bat eskaintzen diola. Orain, azken txanda Bordelen egiten ari delarik, sekula baino bortitzagoa zaio kanpoan egotea, eta ahal bezain garaiz itzultzen da herrira. *Demo* mugimenduko kide ere bada.



Demo-ek kanpaldi aunitz egin dituzte Baionako campusean, euskarazko irakaskuntza aldarri. • Bob Edme

Bordele

Julie Mari uztariztarra Soziologiako lehen urtea egiten ari da Bordelen. Lehen aldikoz bakarrik bizi da, 10 metro koadroko gela batean, unibertsitatetik oren erdira. «Ikasle anitz bada egoitza horretan, gela guziak lerroan, presondegian bagina bezala», dio Juliek. «Bakoitzak gela ttipi bat du; sukaldea, dutxak eta komuna kanpoan daude». Ingelesak, afrikarrak, mundu osoko ikasleak biltzen dira egoitzan, baina Juliek, oraingoz, Euskal Herritik saldoan jin ikasleengana jotzen du.

20 eskola oren ditu astean, eta libro duen denbora jardueratan erabiltzen du; antzerkia, gerlaren kontrako manifestaldiak, musika emanaldiak eta abar. «Baina zaila da Uztaritzetik hiri handi baterako jauzia; karrikan denak arrotzak dira, ez dago zuhaitzik, gauez ibiltzea arriskutsua da... hastapenean euskaldunengana jo behar duzu, bertzenaz galdua zara», adierazten du Juliek.

Ikasteko laguntzak ditu Juliek, eta tren bidaien prezioaren erdia ordaindu behar du. Hala ere, lehen aldikoz bere bizia bakarrik kudeatzea zaila dela aitortzen du. Abantzu egunero biltzen dira euskal ikasleak, eta horrelakoetan sosa zalu xahutzen dela azpimarratzen du.

Asteburu oro itzultzen da Uztaritzera; larunbatetan, trikitixa eskolak ematen ditu, Ezpeletan. Hasieran igandeetan joan eta ostiraletan itzultzen bazen ere, «ardurenetan, astelehenetan joaten naiz, eta ortzegun iluntzean itzuli». Baionara heldu eta berehala, Txitxaki ostatura sartu eta «etxean nago» erraten dio bere buruari.

Paue

Gexane Oiharzabal Isturitzen bizi da, eta bi urtez Nizan egon ondoren, orain Kirol Kudeaketa ikasten du Pauen. Xantal Maiak, berriz, bigarren urtea du Pauen, eta Gaztelaniazko Filologia ikasten dihardu.

Pisua alokatzeko neholako zailtasunik ez dutela ukan diote biek, azken unean atzematen dutela beti. Izan ere, merkea izatea da aterpeari eskatzen dioten baldintza bakarra. Bi kasuetan gurasoen gain daude etxeko gastuak, CAFeko laguntzak jasotzen badituzte ere.

Nizako hastapena gogorrena izan zela aitortzen du Gexanek:

Maialen Torre
Ikaslea Tolosa eta Metzen

«Herrimina nagusitzen joan zitzaidan; azkenik, Euskal Herrian bizi eta lan eginen nuela deliberatu nuen»


AEKn euskarazko eskolak eman zituen Maialen Torrek, «Euskal Herriarekiko lotura atxikitzeko». • Gaizka Iroz

Julie Marie
Ikaslea Bordelen

«Zaila da Uztaritzetik hiri handi baterako jauzia; hastapenetan euskaldunengana jo behar duzu, bertzenaz galdua zara»


Julie Marie asteburu oro itzultzen da Uztaritzera. • A. R.


Gexane Oiharzabal eta Xantal Maia Paue